



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-05-21**

VI. URTEA 1.439. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JOKIN GARMENDIA ETA UNAI IRAOLA TRONTZALARIAK

«Gazte gehienak atzera botatzen dira trontzaren prezioa ikusita»

TOLOSALDEA Baliarraingoak eta Ikaztegiakoak hirugarren postua lortu dute Gipuzkoako Txapelketan

SEKRETUA «Trontzan elkarren arteko koordinazioa eta indarra behar dira gehienbat», diote bi trontzalariek 4-5



Jokin Garmendia eta Unai Iraola, Baliarrainen. NEREA URBIZU



I. TERRADILLOS

SUKRU KARAKUS MARGOLARIA

«Kultura guztien arteko harmonia sortzea da gure helburua»

TOLOSA Bihar hasi eta hilaren 31ra bitarte Turkiako Kultur Astea antolatu dute 2

Segundo Montes komunitateari buruzko erakusketa

ZIZURKIL Atxulondon ikusgai dago; herri honekin anaieratuta dago Zizurkil 6

Illarregi eta Astibia irabazle XXII. Bertso Paper Lehiaketan

LEITZA Pasa den ostiralean egin zuten sari banaketa zinemari 7

E Elkarrizketa

SUKRU KARAKUS > Margolaria

«Kultura guztien arteko harmonia sortu eta gure lurraldea aberastea da asmoa»

Gizartea » Turkiako Aste Kulturala antolatu dute bihar hasi eta hilaren 31era arte; filmak, afariak eta Omar Faruk Tekbilek-en kontzertuak osatuko dute egitaraua.

INIGO TERRADILLOS

Bihar hasi eta datorren larunbaterara arte Turkiako musika, zinema, gastronomia, artea... ezagutzeko aukera izango dugu. Izan ere Sukru Karakus Tolosan bizi den margolari turkiarrak koordinatuta Turkiako Aste Kulturalaz gozatu ahaliko dugu, adin guztiei zuzenduriko ekitaldiak izango direlarik. **Zein helbururekin antolatu duzue ekimena?**

Gizarte batean bizi naiz atzerritar bezala, eta beti ditut era guztietako elkartrukeak. Hemen bizi naiz eta bertako jendearekin gauzak konpartitzen ditut. Nik uste dut, gaur egun, ez dagoela gizarte puru edo berezkorik, guztia nahastuta dago. Duela 12 edo 13 urte ni Tolosara etortzean oso etorkin gutxi zuden, eta nabaritzen zen kalean; egun, asko daude, beste errealitate bat da. Ohitu egin behar dugu eta denontzat egokia den giroa sortu behar dugu. Esaterako, modua izan liteke gauzak elkartrukatu, erakutsiz. Hori egingo dugu ekitaldi hauekin. Kultura mota guztien arteko harmonia sortzea eta gu eta gure lurraldea aberastea da kontua.

Nor arduratu da Turkiako Aste Kulturala antolatzeaz?

Tolosako Udala, Syntorama, Frontonjatetxea eta ni aritu gara antolatzen. Omar Faruk-en kontzertua Syntoramak antolatu du, filmaz Udala arduratu da eta Roberto Ruiz, berriz, afariak. Nik koordinazio lana egin dut. Kulturalan eta gastronomian oinarritzen dira ekitaldiak.

Bihar ikusgai izango den filmak irekiko du Aste Kulturala.

Fatih Akin zuzendari gaztearen



I.T.

Al otro lado izango da ikusgai, 19:30ean eta 21:45ean. Maila handiko zuzendaria da. Alemanian jaioa, turkiarrak dira bere gurasoak. Etorkinen integrazioaz eta elkarbizitzaz ari da filma. Kritika oso onak ditu eta sari ugari irabazi ditu. **Ondoren, datorren asteazkeneko turkiar erako afaria da.**

Roberto Ruiz adiskidearekin ari naiz elkarlanean. Turkiar erako menu tradizionala aukeratu dugu. Ona izango da, ohikoa, eta era berean, jateko erraza. Haragiaz gain barazkiak ere izango dira, beraz, begetarianoentzat ere egokia. Afarian, Omar Faruk Tekbilek ere izango dugu. Biran dago, eta gure gonbidapena onartu zuen. Gurekin afaltzeaz gain, hainbat abesti ere eskainiko dizkigu. Sabel dantza ere izango da ikusgai. Horretaz gain, nire margolan batzuk ere emango ditut parte-hartzaileen artean zozketatzeko. Gastronomia, musika, artea eta dantza bilduko dituen afaria izango da.

Nor arduratuko da afaria prestatzeaz?

Roberto eta nire artean prestatuko dugu menua. Niri asko gustatzen zait sukaldean aritzea. Gaur egingo dugu proba bat hemengo eta Turkiako jendearen artean, menu egokia aukeratzeko denen artean.

Eta Omar Faruk-en kontzertua guztia borobiltzeko.

Datorren larunbatean, hilaren 31ean izango da, Leidorren, 20:30ean. Kontzertu oso ona izango dela ziur nago. Niri asko gustatzen zait, eta jendea oso gustura irreteten dabere kontzertuetatik. Turkiako ohiko musika tresna ia denak jotzen ditu Farukel, eta oso emanaldi polita izango da. **Iazko Turkiako Aste Kulturalak harrera ona izan al zuen?**

Erakusketarekin oso gustura geratu nintzen. 100 lan jarri nituen, eta gero Leidorretik Artelekun jarri nuen erakusketak, eta handik Valentziara. Eta azkenik Estabulen jarri nuen. Gainera, koadro eta posiaz osaturiko proiektu osoa saldu zen, beraz, arrakasta handia izan du. Erakusketaz gain, bi film izan ziren ikusgai, eta jende ugari

>> EGITARAUA



■ **Zine Foruma.** Fatih Akin zuzendariaren *Al otro lado* filma izango da ikusgai, bihar, 19:30ean eta 21:45ean, Leidorren.

■ **Afari turkiarra.** Frontonjatetxean izango da, datorren asteazkenean, hilaren 28an, 21:00etan. Gonbidatua: Omar Faruk Tekbilek. Sukru Karakusen margoak zozketatu dituzte. Sabel dantza. Txartelak 35 eurotan eskura daitezke Frontonjatetxean eta Seikin eta Egoki tabernetan.

■ **Omar Faruk Tekbilek.** Kontzertua izango da datorren larunbatean, hilaren 31ean, 20:30ean, Leidor aretoan.

■ **Informazioa.** 619 00 20 01 edo 943 65 29 41 zenbakietan.

joan zen ikustera. Afarira ere uste genuena baino jende gehiago animatu zen. 100 lagunek hartu zuten parte. Aurtengoa ere iazkoa bezain ondo irteeta espero dugu.

Turkiar jatetxerik zenbat zarete Tolosaldean?

Uste dut 2 garela, eta Gipuzkoan, berriz, 6. Turkiarrak, normalean, lan bila badoaz, Alemania aldera jotzen dute. Hemen daudenak beste arrazoi batzuegatik izan ohi da, nire kasua bezala, nire bikotearengatik etorri nintzela; edo kirolarengatik izan daiteke, Realaren jokalaririk izandako Taifunen kasua bezala. Bera, esaterako afarian izango da.

L Laburrak

Paella jaterako txartelak salgai, udaletxean

ALBIZTUR » Maiatza Kulturalaren baitan larunbaten egingo den paella jaterako txartelak salgai daude oraindik. Parte hartu nahi dutenek udaletxean eros ditzakete txartelak etzi baino lehen 5 euroren truke. Bazkaria 14:00etan hasiko da, eta ondoren In the kitchen taldeak kontzertua eskainiko du.

Jesus Martinezen hitzaldia, izango da gaur, gunean

LIZARTZA » Lizartzako «Udal alternatiboak» antolatu duen Kultur Astearen baitan, gaur, 16:30ean Alondegian Porrotxan ikuskizuna izango da, eta ondoren txokolatada. Bestalde, 20:00etan, Jesus Martinez Eizagirre mediku nutrologoak eta Tolosako Inmakulada ikastetxeiko osasun hezitzaileak hitzaldia emango du gunean.

Udal Liburutegiak ordutegia aldatuko du

TOLOSA » Tolosako Udal Liburutegiak ordutegia aldatuko du, azterketa eta uda garaia gaitik. Honen helburua unibertsitateko ikasleek eskaerei erantzuna ematea, izan ere, eguerdian ez dute itxiko; udaleku irekietan ibiltzen diren haurrek ere haur liburutegia erabiltzea nahi dute, eta horregatik aurten 14:00 arte egongo da irekita. Bestalde erabiltzaile ezberdinak erakarri nahi dituzte: dendaria, lanordua banandua duen jendea... eta Udal Liburutegiak dituen giza baliabideak opor garaiko erabiltzaileen ohitura aldatzeko erabiltzea da asmoa. Halaber, abuztuan goizez lana egiten duten herritarrei mailegu zerbitzua erabiltzeko aukera ematea (aurten 17:00 arte) ere bada aldaketa hauen helburuetako bat.

Jauregiren oroitarriaren eraso gaitzetsi dute

TOLOSA » Tolosako Udako PSE-EEren zinegotzia den Oscar Renedok Juan Maria Jauregiren ome-nezko oroitarriari eginiko eraso gaitzetsi du. «Elkartasuna adierazi nahi diot Maixabel Lasa alargunari eta erasotzaileei egin dutena ordainduko dutela esan nahi diet».

H Hilberria eta eskertza

MARIA JAUREGUALZO ARRIZABALAGA

andrea

Atzo hil zen, 86 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golan bego-

Elkarrekin zenbat disfrutatu dugun, ama.

Bere senarra: Inazio Zabala; seme-alabak: Arantza, Pili, Eulogia, Ramon eta Jose Luis; ezkon seme-alabak: Rafael Tortajada, Salvatore Messina, Javier Barrenechea, Kontxi Aparicio, Ana Murua; bilobak: Agueda, Irene, Lara, Irene, Mirren, Fermin, Mateo, Irati, Beñat, Haritz, Jon; anai-arrebak: Bittoriano(†), Inazio(†), Jesusa(†), Jose Mari(†), Margarita, Kontxita(†), Jesus(†); ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren armaren alde otortu bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte, GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko BOST T ERDIETAN, Alizo azpiko SALBATORRE parroki elizan, GORPUA bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Olazabal Berri baserria

OHARRA: Gorputz belia Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan egongo da, gaur asteazkena 17:15ak arte.

ALTZON
2008ko maiatzaren 21ean**-ESKER ONAK-
IMANOL MURUA
ARREGI jauna**

Maiatzaren 18an hil zen, 72 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golan bego-

Emaztea: Maribou Uribe; seme-alabak: Ane, Ander eta Aurkene, Imanol, Itziar eta Xabier; bilobak: Xanti, Malen eta Markel; Armona Benita; anai-arrebak: Itzi, Kepa, Garbitze, Jose Mari; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

«Imanolen oroimenez inguratu zareten guztiok sendi guztiauren esker ona helarazi nahi dizuegu. Aurrera egiteko indarra eman diguzue»

ZARAUTZ
2008ko
maiatzaren 21a

Mendikutera txangoa antolatatu du Urkizuko Auzo Elkarteak

Aisia » 'Urkizu Berpiztu' egitasmoaren baitan, lehendabiziko ekintza izango da igande honetakoa.

ESTI EZEIZA

Urkizu Berpiztu egitasmoaren baitan, lehendabiziko irteera antolatatu dute Urkizuko Auzo Elkartekook. Hala, igande honetan, hilak 25, Mendikutera txangoa egingo dute, auzoko plazatik abiatuta. Ekimenean edonork har dezake parte, haur nahiz helduek, auzotarrak, zein kanpokoek. Antolatzaileran esanetan, «zerbait egiten ari garela jendeak ikus dezan, haurrekin lotutako ekintza bat egitea pentsatu dugu, eta hau ongi irtetzen bada, gauza gehiago antolatzen jarraituko dugu».

Denera, 40 lagun inguru bizi dira Urkizun, baina ekimen honetan parte hartzen ari dira ere, Auzo Txikiko eta Albizturko zenbait biztanle. Izan ere, nahiz eta Urkizun bertan ez bizi, «beti izan dute lotu-

ra auzoarekin», azaltzen du Arantxa Sorrondegik. Gaineratu du ere, ez dela erraza auzotarrak mugiaraztea, «orain arte ez baita horrela-ko ekintzarik egin». Orain arte sanpedrotan bakarrik antolatatu izan dituzte gauzak. Baina orain, Auzo Elkartekoen asmoa da urtean zehar ere jarduerak gehiago egitea.

Hitzordua Urkizuko plazan

09:00etan abiatuko dira Urkizuko plazatik, eta 10:30ak aldera ailegatu dira Mendikuteko gainera. Erdi Aroko gaztelu baten eta erromatarren garaiko galtzadaren arrastoak aurkituko dituzte bertan. Honenbestez, paraje eder horietan hamaiketako egingo dute. Gainera, auzotar batek, Mendikuteren behe aldean dagoen kobazuloa ikusteko moduan jarriko du, eta hona ere jaitziko dira. Azkenik, berriro Urkizura jaitziko dira, eta han ezusteko bat izango dute.

Historia handiko mendixka

Erromatarren garaitik gaur arteko aztarnak ikus daitezke Mendikutera bidean. Horien artean, Erdi



Mendikuteko gainan zegoen gazteluaren aztarnak ikusiko dituzte igandeko txangoan. ESTI EZEIZA

Aroko gaztelu baten eta erromatarren garaiko galtzadaren arrastoak.

Tontorrera iritsi baino 100 metro lehenago, zuhaitz artean harresi baten aztarnak ikus daitezke. Ikertzaileen aburuz, harrisia eta gaztelua XII. mendean eraiki zituzten Ernioko igarobideak eta in-guruko bailarak zaintzeko helburuarekin. Izan ere, XI. eta XII. mendeetan Ernio inguruak harremanetan jartzen zituen kostalde eta barnealdea (ipar-hego norabidean) eta ekialdea (Bizkaia).

Harresiaren ondoko belardian

gora jarraituta, mendiaren puntara doazen haitzak igo eta zutik mantendu diren gazteluaren partetak ikus daitezke. Horietan sartuz gero, 803 metroko garaiera duen Mendikuteko gailurrera iristen da bisitaria. Gaztelua borobil itxurakoa da, eta egun belarrak zati bat estaltzen duen arren, ikus daitezke harriaren gainean egina dagoela.

Auzo biziberritzeko plana

Urkizu berpiztu ekimena Urkizuko auzotarren, Tolosako Udaltzaren, Tolomendiren eta Fraisoro Nekazal Eskolaren artean au-

rriera eramaten ari diren egitasmoa da. Asteburu honetako txangoa lehendabiziko pausotako bat da, baina aurrera begira, beste hainbat ekintza antolatuta nahi dituzte. Gainera, Auzo Elkarteak ere ia osatuta dago eta laster izango du egoitza. Honez gain, etxebizitza berriak eraikitzeko proiektua ere martxan da. Hauetako batzuk bertakoentzat izango lirateke, eta gaitzakoak, kanpokoentzat. Sorrondegik azaldu bezala, Urkizun bizi direnek bertan geratzeko go-goa daukate, eta aukera hori eskaini nahi diegu».

Azken partida irabazi arren, Tolosakoek ez dute lortu mailari eustea

Futbola » Hiru denboraldi egin dituzte urdinek hirugarren mailan, baina berriro ere aurrekora itzuliko dira.

ERREDAKZIOA

Tolosa CFkoentzat asteburu gazi-goza izan da hau. Izan ere, larunbatean Zallaren aurka 1 eta 2koarekin irabaztea lortu bazuen ere, ezin izan dio Hirugarren Mailari eutsi. Azken jardunaldiko emaitzak kontuan hartuta, Tolosakoak 19. geratu baitira, atzetik, Vitoriakoak zituztelarik.

Denboraldi kaxkarra izan da hau urdinrentzat. Tartean, entrenatzaile aldatetak ere egon ziren. Hiru denboraldi egin dituzte Hirugarren Mailan, baina orain preferentera itzuli beharko dute. Hala ere, garaipen batekin amaitzea lortu dute denboraldi hau. Zallaren aurka jokatu zuten larunbatean, eta 1-2ko emaitzarekin amaitu zuten norgehiagoka.

Lidergoan amaitu dute denboraldia Tolosakoek

Saskibaloiak

Denboraldiaren bigarren zatian bikain aritu ondoren, lehenengo postuan geratu dira Tolosa-Aralarrekoak.

ERREDAKZIOA

Bigarren fase zoragarria egin eta gero, denboraldiari amaiera borobila eman dio Tolosa-Aralarrekoak, sailkapeneko lehen postua eskuratu. Jaitzierako fasean zer balantzerekin sartu ziren ikusita (3 garaipen eta 5 porrot), inork gutxi espero zezakeen Tolosa Aralar-ek lehen postuan amaituko zuela denboraldia. Otsailetik aurrera egin den lanak, ordea, fruituak eman ditu eta hori islatu da azken hamar partidetak emaitzetan, non zortzi garaipen lortu zituzten eta bi porrot besterik ez.

Pasa den ostiralean jokatu zuten denboraldiko azken norgehiagoka Urretxun. Bi taldeek matematikoki mailari eusten zioten eta sailkapenean berdinduta. Beraz, helburu bakarra, bata bestearen aurretik

geratzea zen. Joanekeo partidaren Usabalen jokaturako partidaren goierriarrak garaile izan zirela kontutan hartuz, tolosarrak errebantxa gosez ziren. Horren isla izan zen neurketa osoan zehar erakutsi zuten garaipen gosea.

Lehen laurdenean, etxeko kanpoko jokoa eta kanpotarren barruko jokoa arteko lehia ikusi zen. Laurdena oso parekatua izan zen eta 14-13koarekin amaitu zen. Bigarren laurdenean itxura ez zen batere aldatu. Oraingoan etxeko erasoko errebotea asko kargatu zuten eta bigarren aukerak baliatu zituzten saskiratzeak lortzeko. Hala, amaierara 29-27 iritsi ziren.

Atsedendititik bueltan, bi taldeak indar berriturik irten ziren eta joko azkar eta eraginkor baten laguntzaz puntu festa ikusi ahal izan zuten bertaratu ziren zaleek. Azken laurdenera bi puntuko errentarekin ailegatu ziren, etxeko alde (53-51). Hamar minutu horietan erabaki beharra zegoen garaipena, eta hau, asko kostatu ondoren, tolosarrentzat izan zen.

Hirugarren postuan geratu da Laskorain


ERREDAKZIOA

Joan den astean Gipuzsalaren aurka lortutako garaipenaren ostean, denboraldi bikain honi amaiera eman eta hirugarren postua ziurtatzeko helburuarekin mugitu zen Laskorain taldea Urretxura, aurtengo azken oztopoa gainditzeko asmoarekin.

Urretxuko U.Z. taldea, arerio gogorra izan da urte osoan. Horitxoak erdi lokaturik kantxaratu ziren eta etxekoak 2-0 aurreratu

ziren segituan. Amatriainek alde murritzuko zuen 2-lekoa sareratu. Gol honek taldea apur bat esnarazi arren berriro ailegatu zen etxeko 3-lekoa. Gilek dena den 3-2koa erdietsi zuen lehen zatia amaitzerako.

Bigarren erdian, horitxoek erritmoa nagusitu zen Saldiasen egin zuen berdinketa, penaltiz. Gerora etorri ziren horitxoek beste hiru golak eta etxekoek bakarra. 4-6ko emaitzarekin amaitu zuten.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Segundo Montes komunitateko haur batzuk. HITZA

Segundo Montes komunitatea ezagutzeko aukera Atxulondon

Zizurkil » El Salvadorreko herri honekin anaieratuta dago Zizurkil eta hango historiaren berri jakin daiteke erakusketarekin.

berdinak ezagutu ditu: batzuk aktiboagoak eta besteak lasaigoak. Hala ere, lorpen nagusi bat izan du: uraren makroproiektuan parte hartzea eta edangarria den ura etxeetara eramateko proiektu handian esku hartzea.

ERREDAKZIOA

El Salvadorreko Segundo Montes komunitateari buruzko erakusketarik daiteke egun hauetan Atxulondo kultur etxean. Herenegun arratsaldean egin zen inaugurazioa eta hileren 30era arte ikus daiteke, goiz eta arratsaldean.

Zizurkil, Aduna eta Asteasuko herriak Segundo Montes Komunitatearekin anaieratuta daude 1994tik hona eta, urte hauetan, hainbat proiektu garatu dira. Anaieratze prozesuak garai des-

Anaiatzea Otaño eskolarekin

Zizurkilgo Udalez gainera, Pedro Mari Otaño Ikastetxea ere anaieratu zen bere garaian Quebrachosko Henry Ortiz ikastetxearekin. Otañoen 25. urteurrena ospatzen ari da aurten eta anaieratzea berreskuratzeko lanak hasi dituzte Otañoiko zuzendaritzatik.

Erakusketara joaten denak komunitateari buruzko hainbat argazki ikus ditzake eta baita bere historia eta egungo egoeraren berri jakin ere.



Hainbat proiekturen berri jaso daiteke erakusketan. HITZA

Kukuak eta txupinazoak emango diete gaur hasiera ofiziala jaiei

Anoeta » Pregoilari bezala Landa aita-semeak ariko dira; berrikuntza handirik ez da izango festetako egitarauan.

ERREDAKZIOA

Koadrilen Egunaren eta Dantzari Txikiaren Egunaren ondoren, gaur arratsaldean hasiko dira ofizialki Anoetako jaiak. Ohi denez, Kukuaren etorrerak eta txupinazoak izango dira iragarleak. Aurten pregoilari moduan Landa aita-semeak ariko dira.

Ez da berrikuntza handirik izango egitarauan. Sagardo dastaketa igandetik larunbatera pasatu dute; herri antzerkirik ez da izango eta bertso saioa jarri dute horren ordean. Kontzertuak ostiralean izango dira larunbatean izan ordez.

Berrikuntza interesgarri bat herrikoen aldetik etorriko da. Izan ere, antzerki ikastaroko eta bertso eskolako partaideek emanaldia eskainiko dute ostiralean.

Mozorrotzeko deia

Bihar izango da Korpus Eguna eta horrekin batera ere haurren eguna izango da. Horrela, egun horretan barrakak merkeago izango dira. Bestalde, Udalak dei egin du arratsaldeko buruhandi eta erraldioen



200 dantzarik gora izan ziren igandean Anoetako kaleetan. HITZA



Herri kirolen erakustaldia ikusteko aukera izan zuten igandean. HITZA

kalejiran haurrak mozorrotuta ateratzeko. Aurreko egunei dagozkionez, aipatzekoa da Irura, Iba-

rra, Tolosa, Villabona, Alegia eta Anoetako 200 haur izan ziren dantzan igandean.

» EGITARAUA

Maiatzak 21, gaur

- **18:55.** Herriko txalapartariak kukuaren etorrera iragarriko dute plazan.
- **19:00.** Herriko plazan jaien hasiera: txupinazoak, Kukuaren jai-tsierra kanpai hotsekin eta ume eta gaztetxoek danborrada, Lagunak txarangarekin. Ondoren, Loatzo eskolako trikilarien kalejira.
- **19:30.** Sardina jatea plazan.
- **23:00.** Lauburu erromeria taldearen emanaldia plazan.

Maiatzak 22, bihar

- **10:30-13:30.** Ume eta gaztetxoentzako parkea plazan.
- **16:00.** Patxin eta Potxin pailazoen emanaldia plazan.
- **17:00.** Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- **18:00.** Txokolatete jatea plazan, Ateaga Elkarteak antolatutak.
- **19:00.** Loatzo musika eskolako kontzertua plazan.
- **21:00.** Sahieski jatea frontoian, Anoetako ezker abertzaleak antolatutak. Txartelak salgai Buztinan, Arkupen, Itzulín eta Laián.
- **23:00.** Saioa ta Alabier trikilarien emanaldia plazan.

Maiatzak 23, etzi

- **11:00.** Herriko jubilatuen arteko

toka txapelketa plazan, Alkartasuna elkarteak antolatutak.

- **16:30.** Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- **18:00.** Antzerki ikastaroko eta bertso eskolako partaideen emanaldia plazan.
- **19:00.** Ume eta helduen play-back emanaldia plazan.
- **22:30.** Bertso saioa frontoian: Iker Zubeldia, Amaia Agirre, Erika Lagoma, Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze. Gai jartzailera Angel Mari Peñagarikano.
- **00:00.** Kontzertua plazan: Kokein, Rock'N Roll Ramirez eta Des-Kontrol.

Maiatzak 24, larunbata

- **11:00.** Gorritiren jaialdia: zezen-txoak eta ponyak plazan.
- **12:15.** Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- **12:30-14:00 eta 18:30-20:30.** Erakusketak udaletxean: herriko artisten lanak, eskulanetako taldeak eginiko lanak eta festetako kartel lehiaketan aurkeztutako lanak.
- **15:30.** Mus txapelketa herriko-entzatz, Ateaga Elkarteak antolatutak.
- **16:30.** Txirridulari lasterketa, Oriako Txirridulari Eskolako antolatutak (infantil mailakoak).

- **17:30.** Judo eta gimnasia erritnikoaren emanaldia kiroldegian.
- **18:00.** Gazteen kalejira dantza eginez.
- **19:00.** Sagardo dastaketa, txorizo egosia eta gazta pintxoekin, Kuku Elkarteak antolatutak.
- **21:00.** Herri afaria frontoian.
- **23:30.** Gazteen dantza plazan. Ondoren, Imuntzo ta Beloki erromeria taldea plazan.

Maiatzak 25, igandea

- **11:00.** Meza nagusia. Beasaingo Gurea abesbatzak parte hartuko du bertan.
- **11:30.** Beasaingo Gurea abesbatzaren emanaldia elizan.
- **11:30.** Paleta txapelketako finalak frontoian, Kuku Pilota Elkarteak antolatuta.
- **12:30.** Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- **12:30-14:00 eta 18:30-20:30.** Erakusketak udaletxean: herriko artisten lanak, eskulanetako taldeak eginiko lanak eta festetako kartel lehiaketan aurkeztutako lanak.
- **18:00.** Herri kirolak Anoetako zaharren eta gazteen artean. Arozetxea ondoko belazean. Bukatu ondoren, erromerian plazara.
- **19:30-21:00 eta 23:00etatik aurrera.** Elustondo anai-arreben emanaldia plazan.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nalana etorb. 11 behean - TOLOSA
Mag.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

Iragarki laburrak

LANA

- **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.

Illarregi eta Astibia zonaldeko XXII. Bertso Paper Lehiaketan, irabazleak



Argazkian, saria eta aipamena jaso zutenak, pasa den ostiralean, Leitzako zineman. MIKEL ILLARREGI

Leitza » Ostiralean sari banaketa egin zuten eta Nafarroa mailako irabazleak aipatu zituzten.

NAIARA GARZIA

Joan den ostiralean XXII. Bertso Paper Lehiaketako zonaldeko sariak banatu zituzten zineman. Zonaldeko irabazleak saritzeaz gain, zenbait aipamen ere egin zituzten.

Oskar Estanga Kantuzaleen Elkarteko koordinatzaileak eta Unai Elizasu gai-jartzaileak eman zioten hasiera ekitaldiari. Sariak banatu ondoren bat-bateko bertso saioa egin zuten eta amaitzeko Oskar Estangak abestu egin zuen.

Zonaldeko irabazleak

Erleta eskolako Joanes Illarregi izan zen irabazlea lehen hezkun-

tzako hiruugarren eta laugarren mailetan eta 5 aipamen berezi egin zituzten: Amaia Ezkurdia (Erleta eskola, Leitza), Iker Salaberria (Xalto ikastetxea, Goizueta), Lorena Huici (Xalto ikastetxea), Oier Barandarain (Aresoko eskola) eta Maider Barandarain (Aresoko eskola).

Bosgarren eta seigarren maileri dagokionez, kasu honetan irabazlea ere Leitzako Erleta eskolako izan zen, Iraitz Astibia. Multzo honetan aipamen dezente egin zituzten, 13, hain zuzen ere, eta horietatik 3 Aresokoak izan ziren, Ane Miren Barandarain eta Haritz eta beste 2 Erleta eskolakoak: Markel Intxausti eta Beñat Urkiola.

Ostiraleko Nafarroako zonaldeko sari banaketarekin jarraituz, bigarren hezkuntzan Xalto ikastetxeko Aitzpea Huizik irabazi zuen, eta 3 aipamen egin zituzten,

tartean Amazabal institutuko Ane Intxausti.

Nafarroa mailan, irabazleak

Sari banaketan ere ekainaren hasieran Iruñean ospatuko den Nafarroa mailako irabazleak zein izanen diren aipatu zuten, eta tartean 2 leitzar dira: Joanes Illarregi eta Iraitz Astibia.

Lehen hezkuntzako hiruugarren eta laugarren mailan lehenengo saria Erleta eskolako Joanes Illarregik irabazi du, bigarrena Elizondoko Baztan ikastolako Aintzane Ariztegitik eta hirugarrena, Lesakako Tantarumairu ikastolako Beñat Condek.

Lehen hezkuntzako bosgarren eta seigarren maileri dagokionez, lehenengo saria Berako Rikardo Baroja ikastetxeko Ainhoa Larretxeak eskuratu du, bigarrena Barañaingo Alaitz ikastetxeko Mikel

Lasartek eta hirugarrena leitzar batek Erleta eskolako Iraitz Astibia, hain zuzen ere.

Bigarren hezkuntzari dagokionez, ez Aresoko ez Leitzako ikasleek ez dute saririk eskuratu.

Lehenengo eta bigarren mailatan lehenengo saria Ihabarko Andra Mari ikastolako Garazi Astiz Aranburuk irabazi du, bigarrena Iruñeko Eunate ikastetxeko Haizea Beruete eta hirugarrena Berako Labiaga ikastolako Miren Etxepetelekuk.

Hiruugarren eta laugarren mailatan hauek izan dira irabazleak: lehenengoa Doneztebeko Mendaur ikastetxeko Irati Arriarentzat izan da, bigarrena ikastetxe bereko Maialen Bellarrentzat eta hirugarrena Iruñeko Eunate ikastetxeko Irati Majuelorentzat. Sariak, berri, ekainean jasoko dituzte irabazleak.

Aralar Udala Musika Eskolak matrikula kanpaina abiarazi du

Leitza » Hilaren 26tik ekainaren 20ra arte izena eman ahaliko dute udaltxearn, baita informazioa jaso ere.

ERREDAKZIOA

Aralar Udala Musika Eskolak datoren ikasturterako matrikulazio kanpaina martxan jarri du. Izena emateko epea hilaren 26an zabalduko dute eta ekainaren 20an, berri, itxi.

Musika eskolatik azaldu dute-nez, herriko udaltxerajobehar da izena emateko. Musika eskaintzari dagokionez, bai haurrei (4 urtetik gora) bai helduei zuzenduta dago eta aurten, berrikuntza bat sartu dute, izan ere 7 urtetik gora dituzten haurrek musika tresnarijotzeko aukera izanen dute.

Argibide gehiago nahi dituenak musika eskolara bertara dei dezake (948 50 55 89), eskolako webgunean begiratu (www.aralar.org) edo herriko udaltxearn bertan informazioa eskainiko dute.

Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen.: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Mendibilek antolatuta, Santa Krutzeroa

LEITZA • Joan den larunbatean Mendibil Mendi Taldeak antolatuta mendiri irteera egin zuten. 27 lagun elkartu ziren orotara, eta tartean haurrak ere bazirenez hauek ibilbide motzagoa egin zuten. Lehenengo denak Santa Krutzeroa izo ziren eta gurasoak eta haurrak bertan gelditu ziren eta gero herri-ira itzuli ziren. Gainontzekoek gora jarraitu zuten, Putzenbordan barrera, Asketatik buelta egin eta Santa Krutzetik barrera jaitsi ziren. 13:30 aldera iritsi ziren herrira. Mendibiletik azaldu dutenez, ekaineko beste irteera antolatuko dute, baina oraindik zehaztu gabe daukate nora joanen diren. N. GARZIA





19°
12°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	ESTALIA
BEROENA	18°
HOTZENA	13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alegia.** IV. Kirol Astearen amaiera gisa, igandean Aizkorriren mendi irteera egingo dute, plazatik 08:30ean abiatuta.

■ **Alegia.** III. Bertso Paper Lehiaketa antolatuta du Zazpi Astoren Gai-ner bertsozale taldeak. Lanak Kultur eta Kirol Etxean edo zazpiastorengaienean@gmail.com helbidera bidali behar dira.

■ **Berastegi.** Odol ateratzeak J.A. Muñagorri herri eskolako aretoan 18:30ean. Arduradunek, berriro ere animatu nahi dituzte emaleak ekimen eder honetan parte har dezaten eta bide batez gogorarazten dute, «beharrak handiak direla».

■ **Ibarra.** Datorren asteazkenean (maiatzaren 21ean), arratsaldeko 5,30ean, Ibarra Benito Izagirre kultur etxean ipuin kontalari saio bat izango da. Lur Kortak *Betiko ipuinak* (txanogorritxo, hiru txerrikumeak,...) kontatuko ditu 2-4 urteko haurrentzat.

■ **Tolosa.** Ziklomotoaren azterketa egingo dute Ferialekuan hilaren 26an eta 27. Txanda eskatu behar da Udaltzainguan (943-675858 telefono zenbakian).

■ **Tolosa.** Eduardo Mokoroa udal musika eskolak aurrematrikula egiteko aukera zabaldu du egunero 10:00etatik 13:00etara.

Hitzaldiak

■ **Alegia.** Luis Mari Zulaikaren *Es-kola-kirola baliabide hezitzaile gisa* hitzaldia Kirol Kultur Etxean 19:00etan, IV. Kirol Astearen barruan.

Erakusketak

■ **Alegia.** Fernando Rojo tolosarren argazki erakusketak dago ikusgai Alegiako Jubilatuen tabernan, asteartetik igandera bitarte. Afrikako argazkiak dira.

■ **Zizurkil.** El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearen inguru-

ruko argazki erakusketak Atxulondo kultur etxean.

■ **Tolosa.** *Gizon eta emakume homosexualak historian zehar* argazki erakusketak Kultur Etxean.

Irteerak

■ **Anoeta.** Alkartasuna jubilatuta bitokiak irteera antolatuta du Portugaleteko zubia, Getxoko portua eta Guggenheim museoa bisitatzeko ekainaren 11n. Bazkaria Lur Gatika jatetxean izango da. Izen-ematea, bitokian 27 eurotan (bazkide ez direnek, 30 euro).

■ **Berastegi.** Hilaren 31n, larunbata, Gipuzkoaren eguna ospatuko da Lurdesen. Autobusa antolatuta da egun berean joan etorria egingo duena. Izen-ematea, Marisa edo Maritxurekin harremanetan jarriaz, 943 683 364 edo 943 683 008 telefonoetan 18 euro ordainduduz.

■ **Ibarra.** Lizarrara irteera antolatuta du Bizi nahi jubilatuta elkarteak hilaren 23rako. Izen-ematea, elkartearen 30 eurotan (bazkide ez direnek, 32 euro).

■ **Zizurkil.** Mugarik Gabeko Medi-

kuak elkartearen *Krisi ahaztuak. Bizitza ezikiak* argazki erakusketak Atxulondo kultur etxean hilaren 12tik 16 eta Iriarte kultur etxean 19tik 23ra.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunikuzinik.

A Agurrak




Urte askoan!

Zorionak Intza.
Gaur urtebete. Amatxo eta aita txoren partetik.



Urte askoan!

Eider Tobar Larrauri (Ikaztegieta). Gaur 3 urte. Lehengusu eta familiaren partetik.



Urte askoan!

Julen Otxandorena (Berastegi). Gaur 2 urte. Zorionak pottolo familiaren partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

monologo bakoitzerako **2 sarrera pare** zozketan deitu eta eskuratu

Tolosako Leidorren

Ostirala martxoak 23, 20:30ean	Larunbata martxoak 24, 20:30ean	Igandea martxoak 25, 20:00etan
--------------------------------------	---------------------------------------	--------------------------------------



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez telefono zenbaki honetara: **943 65 56 95**

hazi nahi duten pertsonentzat

Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Buruntzaldea

Maiatza. Asteartea 27, asteazkena 28 eta osteguna 29. 19.00etatik 21.00etara, Hemaniko Biteri Kultur Etxean.

Urola Kosta

Maiatza. Asteartea 27, asteazkena 28 eta osteguna 29. 19.00etatik 21.00etara, Zarauzko Sanz Enea Kultur Etxean.

Izen emateko:

Deitu

Idati

Satu

943 25 10 05

partehartu@baketik.org

www.baketik.org

Laguntza:

Antolatzaile:

Partekatzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamentu Foral de Gipuzkoa

kultura publiko berria
www.kultura publiko berria